

GELBIZ PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN BOST ENPRESEKIN LAN-BILERA GOIERRIN

Posted on 23/09/2024 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [CICLO Metodologia](#), [GELBIZ](#), [Goierri](#), [Metodología CICLO](#)

Joan den irailaren 20an, [GOIEKI](#) garapen agentziaren instalazioetara hurbildu ginen NAIDERetik, [GELBIZ Proiektuaren](#) (Goierriko Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Ibilbide Zirkularra) lehen lan-bilerarako, proiektuaren lehen fasean parte hartzen duten bost enpresa pilotuen ordezkaritzarekin. Proiekturako hautatutako bost enpresez gain, bileran izan ziren parte GOIEKI, eskualdearen eragile gisa, eta Eusko Jaurlaritzaren 2023ko ETE Zirkularraren deialdiaren esparruan GELBIZek babesten duen lhobe ere.

GELBIZek Goierri eskualdeko enpresen lehiakortasunean eragin dezaketen estrategia zirkularrei buruzko ibilbidea eta ikerketa izatea du helburu. Lehen hurbilketa horretarako, tamaina eta sektore desberdinetako bost enpresa pilotu aukeratu dira, eskualdean epe labur, ertain eta luzean lan egiteko esparru kontzeptual bat lantzeko. [LABELAN](#), [Mecanizados LAMI](#), [GOIERRI Eskola](#), [GOILASER](#) eta [MIKRA Estaldurak](#) dira enpresa parte-hartzaileak.

GELBIZ garatzeko NAIDERen azterketa-lana eta Goierriko enpresen partaidetza-lana uztartuko dira. Ikuspegi honek eskualdeko lehiakortasuna bultzatzeko ekonomia zirkularreko estrategia eta tresnen aplikazioan sakontzea ahalbidetuko du. Prozesuan zehar, halaber, Goierrik lehiakortasun zirkularraren arloan duen egoera eta ikuspegia aztertuko dira.

Ildo horretan, proiektuko zereginak kontuan hartuko dituzte Goierriko eta Euskadiko testuinguru ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala, bai eta aldez aurretik egindako dinamikak ere, ahaleginak aprobetxatuz eta biderkatuz. NAIDERek CICLO metodologia eta espezialista-talde bat eskaintzen ditu, eskualdearen lehiakortasun iraunkorrari eta proiektuak enpresa-garapenean duen eraginari buruzko azterketa eta hausnarketa gidatzeko.

